

<b>FEDE ESPERIENTZIA</b>
--------------------------

**Zein da biziaren zentzua?**<sup>1</sup>

Aurreko saioan esan genuenez, gizakien espiritualtasunaren alderdia eta gure bizitzaren zentzuaz galdetzeko dugun gaitasuna (eta beharra) lotuta daude. Gizon eta emakumeok bizi egiten gara, lan egiten dugu, hartu-emana dugu, hainbat gauzez arduratzen gara eguneroko bizitzan... Baina hainbat errealitatek ihes egiten digu, ez dugu ulertzen eta guzti horien erantzuna, zentzua, bilatu behar dugu.

Bizitza "misterioz" beteta dago; hainbat egoerak, galdera eragiten digu: zer dela-eta gertatzen da hau?, zein da horren zentzua? Era bateko eta besteko egoera eta gertaeren aurrean, garai guztietako pertsonak honelako galderak egin izan dituzte:

- Nondik dator mundua?
- Nork sortu du guzti hau?
- Zorioneko izan gaitezke?
- Non da benetako poza?
- Zergatik jaiotzen gara?
- Zergatik hil behar dugu?
- Zer gertatuko da heriotzaren ostean?
- Zergatik dago txarkeria?
- Posible litzateke gerrarik gabeko mundua?
- Zergatik sufritzen du hainbeste errugabek?
- Zergatik gertatzen dira hainbeste errugaberen heriotza dakarten hondamendi naturalak?
- Badago justiziarik mundu honetan?

➤ *Egiten ote ditu jendeak galdera hauek? Zuk zeuk, egin dituzu noizbait?*

Eta historian zehar eman izan diren erantzunak ere askotarikoak izan dira:

- Burugabe eta zentzugabea da.
- Ez dut gauza horietan pentsatzen. Egunak topera bizi nahi ditut, ez besterik.
- Lehendik dut nahiko, horretaz arduratzeko.
- Bizitza polit eta alaia da.
- Orain aldia, egunerokoa axola zait.
- Arazoak arazo, merezi du bizitzeak.
- Gaur ez dut ulertzen, beharbada beranduago bai.
- Pentsatzen dut, baina ez dut erantzunik aurkitzen.
- Zeruan ulertuko dugula diote.
- ...

➤ *Zer erantzuten du jendeak? Zergatik?*

<sup>1</sup> KATEKESIRAKO GALIZIAKO IDAZKARITZAK, *Confirmados en la fe*, 1. PPC, 1996, 42-45 or.

Gaurko munduak makina bat gauza ematen digu bizitza zentzuz bete eta zorioneko izan gaitzen. Baina sarritan galdetzen dugu: "nahikoa ote da guzti hori?, ez ote dugu beste ezer behar?". Galdera hauek egitea eta erantzuna ematen saiatzea, azken batean, alderdi erlijiosoan, Jainkoarengan, pentsatzea da.

### **Fedea, argi egiten duen erantzuna**

Gure bizitzan esperientzia sendoa dugu: inguruan konfiantzazko pertsonak ditugu, beraiez fio gaitzeko, jakin badakigulako maite gaituztela, estimuan gaituztela, gure ona bilatzen dutela, zintzo eta leialak direla. Fedea izatea, sinestedun izatea, ez da zerbaiten sinestea edo jarduera jakin batzuk izatea bakarrik. Fedea izatea, batez ere, Jainkoa onartzea da, Jainkoaz fidatzea, Jainkoarengan gure konfiantza jartzea, bizitza osoa Jainkoarengandik eratzea eta bizitzea. Azken batean, gure bizitzari zentzua ematen diona Jainkoa dela aitortzea da.

Hara zer idatzi duen Benedikto XVI.ak fedear hitz egiteko:

*"Erabaki etikoak edo ideia handi batek ez dakar kristau izatea; kristau izate hori bizitzari zerumuga berria eta, ondorioz, norabide erabakigarria ematen dion gertaera edo Pertsonarekin bat egiteak eragiten du"* (Deus caritas est, 1).

➤ *Zer diotsu Aita Santuaren aipamen honek? Nola ulertzen duzu?*

Kristau fedea, beste ezer baino lehen, ESPERIENTZIA da, Jesusekin bat egitearen esperientzia, gertaera bihurtzen dena, bizi duenaren bizitza aldatu egiten duelako norabidea emanez: Berri Ona. Horregatik, fedea ez da ez arrazoizko uste sendo edo sinesteetara ezta bizitzako jokabide jakin batera (moralera) murrizten. Fedea, batez ere, lagunduta, ulertuta, maitatuta, argituta, askatuta... azken batean, Jainkoak salbatuta sentitzearen doako esperientzia da.

Sinestedunontzat, bizitzaren zentzuari buruzko galderen erantzuna Jesukristorengan dago. Jesus onartzen duenak eta Berataz fio denak, bere bizitzaren zentzua aurkitzen du. Jesusek bere bizitzari benetako zentzua ematen diola sinesten duenak aurkitu du altxorrik ederrena. Merezi du Harengatik dena uzteak.

*"Jainkoaren erregetzarekin, landan ezkutatuta dagoen altxorarekin bezala gertatzen da. Norbaitek aurkitzen duelarik, berriro ezkutatu egiten du, eta pozaren pozez joan, dituen guztiak saldu eta landa hura erosten du. Era berean, Jainkoaren erregetzarekin, harribitxi bila dabilen tratulariarekin bezala gertatzen da. Balio handiko bat aurkitzen duenean, joan, bere gauza guztiak saldu eta erosi egiten du"* (Mateo 13, 44-46).

Azken batean, hau da kristau izatea:

➤ *Zer diotsu guzti honek? Zer gertatu zaizu deigarrien? Bat zatoz?*

